

'Liburu elektronikoa', guztion esku Elkarren salmenta-tokietan

Bi fabrikatzaile europarrenak jarri dituzte bezeroen eskueran: zortzi hazbeteko pantaila duen iLiad izenekoa, eta sei hazbete dituen Booken Cybook dispositiboa.

Elkar liburu denda sareak 'liburu elektronikoa' deritzona jarri du salgai, euskarri horretan irakurtzeko aukera ematen duena.

Elkarrek gaur adierazi duenez, horrelako aukera bat eskaintzen duen lehen enpresa da Euskal Herrian eta Espainian, bere bezeroek liburuak gailu elektronikoen bitartez irakurri ahal izango dituzte aurrerantzean.

Elkarren liburutegiek bi fabrikatzaile europarren liburu elektronikoak jarri dituzte bere bezeroen eskueran: iRex Technologies holandar etxearen zortzi hazbeteko pantaila duen iLiad izenekoa, eta sei hazbete dituen Booken Cybook frantziar dispositiboa.

Bi markek formatu desberdinetako irakurketa ahalbidetzen dute, Mobipocketez gain (liburu elektroniko hauek duten berezkoa), PDFak eta HTMLak, besteak beste.